

Editoriala

Geure burua hiri-ekoizpenetan kokatuta. Esperientzien xerka jarraitzen dugu, bultzatuko gaituztenak espazioei so egitera, espazioetan lan egitera eta espazioak modu heterogeneoetan bilatzera, diziplina anbiguoetatik, ezagutza kokatuen bitartez.

Hemen bata bestearen alboan kokatzen diren hiri-ekoizpenak gogoeta kritiko batetik sortzen dira, inguratzen gaituenaz, espazioak inguratzen gaituena nola ordenatu, hierarkizatu eta esanahia ematen dion gogoetagai hartuta. Inter-subjektibotasunetik gogoetarako esparru publiko bat eraikitzea da prozesu horren helburua. Esparru horrek, espazio bai fisiko bai diskurtsiboa bera, zirkunstantzien arabera, espazioaren ikusmolde aldakor bat proiektatzen digu, espazioaren arkitektura eta hortik inposatzen diren harremanak eraldatzeko ahalmena duena. Horri esker abiapuntu desberdinetatik koka gaitzke espazioan, helmugarik zertan izan gabe.

Hiri-ekoizpenak gogoeta kolektiborako espazioak dira. Hiria pentsatu eta bizitzeko espazioak izateaz gain, jendearekin eta gure inguruarekin erlazionatzeko ditugun modu desberdinetan pentsatzeko espazioak ere badira. Aldi berean, espazio horiek ahalbidetu egiten dituzte harremanak lehen harremanik ez genuen subjektuekin, lehen jorratzen ez genituen inguruneekin.

Ildo horretan, eta gogoeta honekin kontsekuente, zenbaki honetan eta datozen zenbakietan Zehar aurkezten da mutatzen jarraituko duen argitalpen moduan, zeinean edukiei eusten dien egiturak balantza egiten baitu, eta mugimendu horren ondorioz beste euskarri bat sortzen da, beste diseinu bat, bestelako mugimendua. Diseinu berri honek bide ematen digu argitalpena osatzen duten edukiek beren artean elkar eragiten duten, gainjartzen diren, elkar trukutzen diren, elkarrekin aberasten diren esparru berri bat sor dadin.